

## Mario Zubiaga, EHUko irakaslea

# “Burujabetza sozialerako indar metaketa eta Gure Esku Dago ez daude kontrajarriak”

EHUko irakaslea da Mario Zubiaga, euskal nazionalismoa eta erabaki eskubideari lotutako gaietan aditua. Aldi berean, Gure Esku Dagoko idazkaritzakoa ere bada. Euskal gizartea erabaki eskubideari buruzko horren une esanguratsua bizitzen ari den honetan, bere begirada bereziki da interesgarria.

### Nola baloratzen dituzu orain arte herrietan izandako kontsultetako emaitzak?

Aldaketa kualitatiboa baloratuko nuke lehenik. Gure Esku Dagon bultzatutako galdeketetan tranbertsalitate hori garrantzitsua izaten ari da herri guztietan. Artekaritza lana ere hor dago, desmobilizatuak eta deslotuak dauden sektoreak mobilizaziora ekarriz eta oso ekin-tza zehatzera: hau da, kontsulta batean ezezagun bati –ez baita ofiziala– zure datuak ematen dizkiozu eta zer nahi duzun adierazi.

### Alor kuantitatiboaz zer balorazio egiten duzu?

Herri ekimen batetik abiatuta, erroldaren %25etik %30erako parte-hartzea lortzea izugarrizko arrakasta da. Kontu hauei buruz dakienak badaki hori. Madrilgo Udalak antolatzen du halako kontsulta bat eta ez da %5era iristen, Sevillakoa %6ra.

### Zuk idatzitako *Excepción compartida – Salbuespen partekatua*– artikuluan honako galdera egiten duzu hasieran: “Une konstituziogile batean gaude ala indar metaketari ekin behar zaio eta denbora hobeagoi itxaron?”. Non gaude?

Galdera hori egiten diet estatus politiko berri bat ekarri nahi duten eragile politikoei. Sumatzen dut ikuspegi subiranista duten alderdi eta sindika-



IÑIGO AZKONA



tuek uste dutela oraindik ez dela unea makina subiranista abian jartzeko. Ezker abertzalea aurreko zikloa ixten ari da oraindik eta, besteak beste, barne berrantolaketa egiten ari da. EAJn ziurrenik zalantzak daude ataka honi aurre egiteko unean: Jauzi subiranistarako unea al da? Arriskuan jarriko al dugu daukaguna autogobernu maila handiago bat lortzeko? Oro har, Katalunian zer gertatzen denari begira daude, eta gero gerokoak.

#### **Nola ikusten duzu indar subiranisten inplikazioa erabaki eskubidearekin?**

Dagoeneko indar subiranistek sumatu dute Gure Esku Dagok bide orri bat duela eta, Katalunian bezala, gure agintari politikoekin batera agenda bat osatzeko nahia dagoela. Datozen bi urteetan Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldeak oinarri batzuk finkatu behar ditu eta hortik estatutu berri baterako proposamena aterali teke. Ez bada ezer egiten hor aterako dena bakarrik parlamentuko indar harremanen fruitu izango da. Batzuek ez dute inoiz errepikatuko Ibarretxearen ibilbidea, eta Madrilera badoaz onartzeko moduko testu batekin joango dira. Herritarren aldetik presiorik ez badago, hori da eszenatoki logikoena.

#### **Kontrajarrita al daude ELAk planteatzen duen burujabetza sozialerako indar metaketa berria eta Gure Esku Dagoren egungo dinamika?**

Ez dut uste. Batzuek kontrajarrizat jotzen dituzte eta pentsatzen dute Gure Esku Dagok oso oinarrizko planteamen duak dituela, lausoegiak. Erabakitze-ko eskubidea ez da arlo bakar batera mugatzen, filosofia sakona du atzean, herritarren burujabetzaren aldarria. Paradigma aldaketarekin batera, indar metaketa zabala erdiestea denean jomuga, diskurtso erradikalago batek jende gehiago erakarriko duela uste dugu? Momentu historiko honetan kontua ez da gutxieneko abanguardia bat sortzea, independentismo argia, diskurtso sozial alternatiboa, kontraboterea landuko duena... une hau indar metaketarena da. Gizartetik abiatutako tresna subiranista indartsu baten bilakaera ezin da aurreikusiri, parte hartzaileen esku dago.

#### **Joxe Elorrietak bere azken liburuan esaten du ezinezkoa dela prozesu subiranistatik egitea neoliberalismoa eztabaidaren erdigunean jarri gabe.**

Neoliberalismoa erdigunean jartzeko modu asko daude, horietako bat neoliberalismoari kontra egiteko pedagogia egitea da, eta ez diskurtso klasiko eta oso ideologizatuekin. Gure gizartean

agintzen duen elitea neoliberal da, baina ez dut uste gure gizartearen gehien- goa neoliberal denik eta bilatu behar da gehiengo hori erakartzeko diskurtso bat. Erabakitze-ko eskubidea, bere sako- nean, neoliberalismoari aurre egiteko diskurtsorik eraginkorrena da.

#### **Badira gai gatazkatsu asko herrietan, adibidez Gipuzkoan Zubietako errauskailua, edo justizia sozialaren ingurukoak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta... horiek alboratu behar dituzte Gure Esku Dagoren kideek?**

Gure Esku Dagoren oinarrizko agirian *-Eskura* dokumentuan- eta orain abian dagoen Herritarren Itunean marko bat planteatzen da eta honek oso garbi uzten ditu helburuak zeintzuk diren: gauza guztiez erabaki nahi dugula. Marko orokor horrek guztiontzako balio du eta guztiei ematen die aukera haien plataforma propioa garatzeko. Gure Esku Dagok 2.000 bazkide inguru ditu, herri askotan ditu taldeak, konfiantza batzuk eraiki dira... horrek merezi du konfiantza bat eta edukiz bete daitekeen bila- kaera baten aukera ez baztertea.

#### **Maltzagako izpiritua berreraikitze-ko ahalgina ere ikusten dute askok.**

Honek ez du zerikusirik Maltzagarekin. Hori eliteen prozesua da: bateko zein bes-

teko eliteak bildu, negoziatu, adostu eta gero jendeari esan. Lizarra-Garazikoa ere hori bera zen, eliteek adostu eta jendea begira. Gure Esku Dago herritarren mugimendua da eta bakoitzak duen inplikazioaren arabera garatuko dira bere ezauzgarriak, ez daude alde zurretik finkatuta.

### Galdeketez jende mobilizazio handia ekarri dute, baina hala ere ez da tentsiorik nabaritzen. Egin daiteke tentsiorik gabeko prozesu subiranistik?

Hau prozesu dinamiko bat da. Argi dago giza katetik ona Gure Esku Dagok presentzia politiko handiagoa duela, baina oraindik tentsiorik gabe, tentsioa indar posizio bat lortzen denean pizten delako, herritarren borondatea errespetatzen ez dutenekin lehian.

### Galdeketez, Ituna... eta gero?

Tresnak herri-dinamika berak definitzen ditu aldiro. Ezin dugu ahaztu beste errei batzuk ere badaudela zabalik, esaterako, Eusko Legebiltzarreko ponentziak izango al du kontsulta ahalduzaila bat? Hau da, testu artikulatua onartzen denean, gero Madrilerara joan behar da. Bada, agian ko-

» **Gure Esku Dagok ez du zerikusirik Maltzagarekin. Hori eliteen prozesua da, Lizarra-Garazi bezala. Gure Esku Dago herritarren mugimendua da eta bakoitzak duen inplikazioaren arabera garatuko da**

meni zaigu aurretik kontsulta bat eginda joatea, nahiz eta hori ez dagoen legean aurreikusia. Gizarte ekimena erabakitzailea izan daiteke abagune horretan. Katalunian hala izan zen azaroaren 9an.

### Erreferenduma egin egingo da, baina Madrilekin negoziatutako estatutu berri baten ingurukoa.

Autogobernu ponentziatik atera daiteke zerbait, baina ez ditut gure indar subiranistik ikusten hortik zerbait atera dai-

tekeela pentsatzen, iruditzen zait alde zurretik galdutzat ematen dutela gudu hori. Iritzi erabat pertsonala da hau, noski. Dagoeneko esaten duzu hemendik bi urtera onartuko den dokumentutik ez dela ezer aterako? Hori borroka bat galdutzat ematea da, zure indarretan konfiantzarik ez izatea eta, gainera, nolabaiteko ihesbide bat: "Ez, neoliberalak dira eta ni neoliberalismoaren aurka nago, guk gure indarrak tenkatu behar ditugu eta bost-hamar urte barru ikusiko dugu zer egin".

Azkenean, 1978ko eztabaida berdina da. "Mendirra" joateko modu asko dago, eta ez da ezinbestekoa horretarako borroka armatura jotzea. Nire kezka da batzuek une honetan "mendira" jotzeko tentaldia izan dezaketela, artikulazio zabalei muzin eginez. Batzuk borroka luze batetik datozelako, besteak eroso daudelako beren autonomian... orduan mendira. Une honetan eztabaida estrategikoetarikoa bat hor egon daiteke. ■

» Elkarriketa honen bertsio luzea [www.argia.eus](http://www.argia.eus)-en joango da, astekariko 2.552 zenbakian.

**EZ DA DIRUDIENA**

**AZALDU ZURE IKUSPUNTUA**

**Maiazaren 12an emango dira CAF-Elhuyar sariak.**

**Ekitaldia Donostiako Tabakaleran izango da, Kutxa Kultur gunean, 18:00etan.**

**Gonbidatuta zaudete!**

ANTOLATZAILEAK  
**CAF elhuyar**  
ezagutz aldatzea

BABESLEAK  
neiker  
kutxa kultur

CAF ELHUYAR SARIAK 2017